



**LABURPEN-FITXA, HONAKO HAUEK
KONTRATATZEAN INGURUMEN-IRIZPIDEAK
SARTZEKO:**

AUTOBUS BIDEZKO GARRAIO PUBLIKOA

Egin deneko data: 2020. urtea

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Dibulgazio-dokumentu hau erakundeen -publikoak nahiz pribatuak- **erosketa eta kontratazioetan ingurumenarekin lotutako alderdiak txertatzeak** dituen abantailak helarazteko eta dibulgateko helburuz egindako dokumentuen bilduman dago.

Dokumentu honen bidez, modu erraz batean adierazi nahi dira zein diren kontuan hartu beharreko alderdiak, erosketa edo kontratazio bat ingurumenarekiko modu arduratsuan egiteko. Kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsuenak berrikusi ez ezik, ingurumenarekiko errespetuzkoak diren produktuak/zerbitzuak identifikatzeko etiketa nagusiak ere berrikusten dira. Azkenik, erosketa- edo kontratazio-prozesua arrakastatsua izateko, prozesu osoan eman beharreko urratsak ere ezartzen dira dokumentuan.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA da Eusko Jaurlaritzak, Ihobe - Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bidez, egindako laguntza-tresna garrantzitsuena.

Eskuliburu honetan beharrezko informazio osoa dago erosketa eta kontratazio berdea administrazio publikoaren tipologia guztietan modu integral batean hedatzeko.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago hemen:
<http://www.ihobe.eus/>





HONAKO HAU ERABAKI DUGU:

INGURUMENEAN ERAGIN TXIKIAGOA DUTEN AUTOBUS BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZUAK KONTRATATZEA

Errepide bidezko pertsonen garraio publikoak lehentasuna du erosketa eta kontratazio publiko berdearen esparruan. Batez ere, bi arrazoirengatik:

- Garraioaren sektorean esku hartzearen garrantzia, ingurumenean dituen inpaktuak murrizteko, batez ere klima-aldaketan eta airearen kalitatean.
- Administrazio publikoak sektore horren merkaturan eragiteko duen ahalmena, administrazioa baita autobusen eta autobus bidezko garraio-zerbitzuen eskatzaile nagusia. Izan ere, pertsonen garraioa funtsezko zerbitzua da, derrigorrezkoa 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan.

Jarraian, autobusak erosteko eta/edo autobus bidezko garraio-zerbitzuak kontratatzeko - erregularrak nahiz lineaz kanpokoak, hirikoak nahiz hiriartekoak, eta orokorrak nahiz bereziak-kontuan izan beharreko zenbait alderdi zehazten dira.

 **ZER JAKIN BEHAR DUGU?**

Autobus bidezko garraioan ingurumen-irizpideak sartzearen helburua garraio mota horrek ingurumenean eragin dezakeen inpaktua minimizatzea da. Horrekin lotutako zenbait ideia:

Kontzeptu nagusi batzuk**Zein dira autobus bidezko garraioarekin lotutako ingurumen-inpaktuak?**

1. Energia-kontsumo handia eta horrekin lotutako CO₂ emisioak.
2. Airearen kalitatean eta gizakien ongizatean eragin kaltegarria duten substantzia kutsatzaileen emisioak eta zaratak.
3. Hondakin berezien sorrera, haien ahalmen kutsatzailea dela-eta, kudeaketa egokia behar dutenak (olio lubrifikatzaileak, bateriak eta abar).

Zer neurri har daitezke autobusen bizi-ziklo osoan talka horiek minimizatzen?

- Ibilbideak eta eskaintzen diren zerbitzuak optimizatzea, intermodalitatea sustatuz.
- Energia-kontsumo baxua eta CO₂, gas kutsatzaile eta zaraten emisio baxuak dituzten ibilgailuak erabiltzea.
- Ibilgailu-flota dibertsifikatzea, teknologia garbiagoak sartuz eta erregai alternatiboen erabilera sustatuz.
- Ibilgailuetan, balio-bizitza osoan kontsumoak murrizteko balio duten ekipamenduen instalazioa sustatzea.
- Ibilgailuen mantentze-lan egokiak bermatzea eta mantentze-lanetan ahalik gutxien kutsatzen duten eta zerbitzuaren inpaktua murrizten duten produktuen erabilera bermatzea.
- Sortutako hondakinen tratamendu zuzena egitea, sektore osagarriak berreskuratzea sustatuko duena.

Gai honekin lotutako ingurumen ziurtagiriak: zeintzuk dira eta zer bermatzen dute?

- **Ibilgailuei buruzko informazioa ematen duten etiketak.** Autobusetarako ez daude N1 eta M1 ibilgailuetarako dauden eraginkortasun energetikoari eta CO₂ emisioei buruzko etiketak. Gaur egun, gas kutsatzaileen emisioei buruzko bereizgarri bakarra Espainiako Estatuko Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak garatutakoa da, helburutzat gutxien kutsatzen duten ibilgailuen diskriminazio positiboa duena.

Kontzeptu nagusi batzuk



Bateria elektrikoko ibilgailuak (BEV), luzatutako autonomia duen ibilgailu elektrikoa (REEV), 40 kilometroko autonomia minimoa duten ibilgailu hibrido entxufagarriak (PHEV+) eta erregai-zelula bidezko ibilgailuak.



40 km-tik beherako autonomia duten ibilgailu hibrido entxufagarriak (PHEV-), hibrido ez-entxufagarriak (HEV), gas natural konprimatuaren bidez propulsatuak (GNC), gas natural likidotuaren bidezkoak (GNL) eta petrolioaren gas likidotuaren bidezkoak (GLP). Edozein kasutan, C etiketaren betekizunak bete beharko dituzte.




Euro VI gasolina edo diesel ibilgailuak.



Euro IV edo Euro V gasolina edo diesel ibilgailuak.

- **Ibilgailuei buruzko informazioa ematen duten etiketak.** Pneumatikoetarako, eraginkortasun energetikoa, azalera bustietan duen itsaspena eta zarata adierazten duen derrigorrezko etiketa dago, 1222/2009 (EE) Erregelamenduak arautzen duena. Etiketa horren bidez, ibilgailuen erabilera eraginkortasun energetiko handiagoa eta zarata gutxiago eragiten duten pneumatikoak aukeratu ahal dira.



- Haien flotarekin, instalazioekin eta langileekin autobus-zerbitzuak eman behar dituzten **enpresen ziurtagiriak**. Enpresak Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren baten bidez edo baliokide baten bidez (EMAS, ISO 14001...) egiaztatuta egotea lehenetsiko da. Ziurtagiri horiek enpresek araudia betetzen dutela eta instalazioetan eta ibilgailuen mantentze-lanetan ingurumen-praktika onak egiten direla egiaztatzen dute.



KONTRATATZEKO ERABAKITIK AINTZAT HARTU BEHARREKO IRIZPIDEETARAINO

Ingurumen irizpideak aintzat hartuta, autobusen erosketa prozesuan eta/edo autobus-zerbitzu bat kontratatze prozesuan erabakitze eta eragiteko zenbait une daude. Zein dira? Nola jardun dezakegu jasangarritasunez?

ZEIN DIRA GURE BENETAKO BEHARRAK?

1. unea Beharrak

Garraio publikoaren helburua haren erabilera sustatzea da, ibilgailu pribatuaren kaltean.

Garraioaren beharrak zein diren jakiteko, lehenik, ekintza hauek egin behar dira:

- **Mugikortasunari buruzko azterlanak** egitea, pertsonen mugimenduak nahiz mugikortasunarekin lotutako beste behar batzuk identifikatzeko.
- Azterlan horietan oinarrituta, **zerbitzuaren planifikazio** ona egitea (ibilbideak optimizatzea, maiztasunak doitztea, baliabide egokiak ematea eta zerbitzuaren kalitatea hobetzea).
- Garraio publikoa, integrazio modala eta ibilgailu pribatua erabiltzeko disuasioa sustatzeko eta hobetzeko **bestelako tresna osagarriak** aplikatzea.

Zerbitzua planifikatutakoan, honako hauek egin behar dira:

- Zerbitzu bakoitzaren eta haren baldintza geografikoetan oinarrituta, zerbitzua emango duen flotaren beharrak aztertzea: ibilgailuen tamaina, potentziak, motorizazio motak eta abar.
- **Flotarentzako plan** bat zehaztea, beharretan eta baldintzetan oinarrituz, flotako ibilgailuak ingurumenarekiko hobeak diren ibilgailuekin pixkana ordeztu joateko.
- **Jarduera-adierazleak eta kalitate-kontrolak** ezartzea, zerbitzuaren beharrak neurtzeko eta hobekuntza-jarduketak identifikatzeko.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

2. unea: Autobusak erostea edo zerbitzua kontratatzea

Beharrak zehaztutakoan, autobus bidezko garraio-zerbitzuak ingurumenarekiko errespetuzkoak izateko, zenbait ingurumen-irizpide txertatu behar dira: autobusen erosketan eta pneumatikoen eta lubrifikatzaileen hornikuntzan -kudeaketa osoa administrazioak egiten badu- edo zerbitzuaren kontratazioan -zerbitzua kanpoko enpresa bati esleitzen bazaio-.

1. Autobusak erostean aintzat hartu beharreko ingurumen irizpideak:

- Honako ezaugarri hauek dituzten autobusen erosketak lehenetsiko da:
 - Energia-kontsumo baxua, UITPren SORT testean edo baliokideetan oinarrituta.
 - Gas kutsatzaileen emisio baxuak, Eco edo CERO kategoria, DGTren arabera.
 - Motorraren zarata-maila baxuak, araudian zehaztutakoak baino 2dB(A) baxuagoak gutxienez.

2. unea: Autobusak erostea edo zerbitzua kontratatzea

- Eragozpen desatseginak eta energia-kontsumoa murrizten laguntzen duten beste tresna batzuez ekipatuta egotea ere balioetsiko da:
 - Konbustio-gasen irteerak bidaiariek sartu eta irteteko erabiltzen duten atearen aldean ez egotea.
 - LED bidezko barneko eta kanpoko argiztapena izatea (aukerazkoa faroetan).
 - Pneumatikoen presioa automatikoki kontrolatzeko sistema edo operadorearen instalazioetan presioaren kontrola egiteko sentsoredun sistema.
 - Kontsumoa denbora errealean adierazteko sistema izatea (takometroan integratua).
 - Kontsumoa eta gidatze-eredua monitorizatzeko sistema telematiko integratua izatea.
 - Aire egokituarentzako GWP baxuko gas hoztaileak erabiltzea (GWP 150 edo baxuagoa duten gasak, 100 urtetarako CO₂-a erreferentziazat hartuta).
 - Ingurumenerako hobeak diren pneumatikoak eta olio lubrifikatzaileak erabiltzea (ikusi 2. puntua).
- Ibilgailuen balio-bizitzan, mantentze-lanetarako beharrezkoak diren piezak, osagaiak eta ekipoa izatea eta haien hornikuntza bermatzea.

2. AUTOBUS BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZUA kontratatzeko ingurumen irizpideak:

- Zerbitzua, instalazioak eta zerbitzua gauzatzearekin lotutako jarduerak (tailerrak, garajeak, auto-garbiketarako tunela) Zerbitzu Ingurumen Kudeaketarako Sistema (EMAS, ISO, 14001 edo baliokidea) baten bidez egiaztatuak dituzten enpresak aukeratuko dira.
- Flotari dagokionez, batez beste honako ezaugarri hauek dituzten ibilgailuak lehenetsiko dira:
 - EURO estandar zorrotzenak bete, eta, horren ondorioz, CO₂ eta gas kutsatzaileen emisio txikiagoak dituztenak, eta, hein batean, Eco edo CERO kategoriakoa, DGTren arabera.
 - Energia-kontsumoak eta zerbitzuak eragindako beste inpaktu batzuk murrizten dituzten gailu eta irtenbideak instalatuak dituztenak.
- Zerbitzu osoan inpaktuak murrizteko gidatze eraginkorrean trebatutako pertsonala duten eta arlo horretan etengabeko prestakuntza ziurtatzen duten enpresak.
- Mantentze-lanetan honako hauek erabiltzen dituztenak:
 - Itsaspen-mailari buruzko segurtasun-baldintzak bermatzen dituzten, balio-bizitza luzeko, eraginkortasun energetiko altuko (A edo B klasea) eta zarata-maila baxuko (1. edo 2. klasea) pneumatikoak.

2. unea: Autobusak erostea edo zerbitzua kontratatzea

- Balio-bizitza altua eta birsortutako olio enehuneko motorrerako olio lubrifikatzaileak.
- Motorraren mantentze-plan egoki baten bidez, kontsumoen kontrolaren bidez eta pneumatikoen presioaren kontrola bidez mantentze-lan on bat bermatzen duten enpresak, ibilgailuen mantentze-lanetan eta funtzionamenduan arazoak antzemateko.
- Hobekuntzak identifikatzeko eta planifikatzeko, zerbitzuaren gaineko jarraipen- eta monitorizazio-mekanismoak (kilometrajea, kontsumoak eta emisioak guztira, kilometroko, ibilgailuko eta bidaiariko) izatea.
- Sortutako hondakin berezien kudeaketa egokia egitea (pneumatikoak, olioak, iragazkiak, bateriak eta abar, bai eta beren balio-bizitzaren amaierara iritsi diren ibilgailuak).

Adierazitako irizpide guztietatik, eskaini behar den zerbitzu zehatzerako garrantzitsuenak eta egokienak direla irizten ditugunak eskatuko eta balioetsiko ditugu.

Kontratazioa prozedura ireki edo negoziatu bidez egin nahi duten administrazioen kasuan, Ihebek argitaratutako kontratazio eta erosketa publiko berdearen eskuliburu praktikoan daude autobusen erosketan nahiz zerbitzuaren kontratazioan txertatu beharreko irizpideak (bi eskakizun mailatarako: oinarrizkoa eta aurreratua), Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari jarraiki.



INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO...

Lotura interesgarriak

- Informazio hauetan sakondu beharrean, kontsultatu Ihoberen web orrian, erosketa publiko berdearen atalean, <http://www.ihobe.eus/ingurumen-irizpideak>, edo ihoberekin kontaktuan jarri:
 - ⇒ Tel.: 94 423 07 43
 - ⇒ Mail: compra.publica@ihobe.eus